

2. MERKATUEN SEGMENTAZIOA:

Gure enpresan hiru segmentazio-mota ditugu . Hiru komunitate-mota egokitzen gara zure beharretara, baldintzetara eta gure produktu onenak eta kalitaterik onena eskainiko dugun lan-motara. Hauek dira hiru segmentuak:

1. Espazio gutxiko etxeetako jabeak edo erreformak egiten dituztenak

Talde honetako pertsonak normalean etxebizitzako espazioa ahalik eta gehien aprobetxatu nahi dute erosotasunagatik edo funtzionaltasunagatik. Gure sistemak horma integratzen diren leiho modernoak eskaintzen ditu eta horri esker espazioaren optimizazioa maximoa da. Ez da lekurik galtzen eta soluzio garbi eta praktikoa lortzen dute, eguneroko bizitzan ondo egokitzen dena.

2. Mugikortasun murriztua duten pertsonak

Horiekin, agian, ezin da zuzeneko harremanik izan, haien legezko tutorearen edo familiaren bidez joko baitugu haiengana. eta elkarteen bidez ere informazioa jasoko dugu. Eta guregana jo dezakete beste edozeinek bezala sare sozialen, irratia, telebistaren eta abarren bidez.

Segmentu honen beharretan arreta berezia jartzen dugu. Mugikortasun txikiagoa duten erabiltzaileek produktu erraz eta segurua behar dute eta horregatik gure leihoak mando bidez edo mugimendu minimoarekin erabil daitezke. Helburua da erosotasuna eta erabilgarritasun erraza eskaintzea, erabiltzaileak ez daitezen behartu mugimendu zail edo pisutsuak egitera eta etxeko segurtasuna horrela bermatzen dugu.

3. Diseinua eta luxua bilatzen dituzten bezeroak edo promotoreak

Talde honentzat garrantzitsua da estetika, estiloa eta eksklusibitatea. Gure produktu berritzailea horma guztiz integratzen da, eta horrek diseinu garbia eta modernoa sortzen du. Segmentu honi diseinua, eksklusibitatea eta integrazio perfektua eskaintzen diegu, eraikin edo etxebizitza modernoetan erabat egokitzen den soluzio premium baten bidez.

Gure helburua bezero bakoitzari behar dituen abantailak eskaintzea da: espazioa optimizatzea, erosotasuna eta erabilerraztasuna hobetzea edo diseinu berritzaile eta berezia lortzea. Horretarako, hurbiltasuna, entzute aktiboa eta tratamendu pertsonalizatua dira gure oinarriak, eta erabiltzaile bakoitzari esperientzia egokia eskaintzen saiatzen gara.

